

XXXIII. IGANDEA ASTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jaingo gure Jauna, emaguzu Zuri beti pozik zerbitzu egitea;
on guztien egile Horren zerbitzuan bizitzea baita guretzat
egiazko zorion betea.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dn 12, 1-3

Aldi hartan salbatuko da zure herria.

Daniel Profetaren liburutik

Egun haietan, ni, Daniel, negarrez nengoen, eta hitz hau aditu nuen Jaunarengandik:
«Egun haietan, jaikiko da Mikel goi-aingerua,
zure herriko seme-alaben zaintzailea.
Larrialdi handia izango da,
herriak izaten hasi zirenetik berdinik gabekoa.
Baina, aldi hartan salbatuko da zure herria;
liburuan idatzita dauden guztiak.
Lurreko hautsetan lo dauden asko esnatuko dira;
batzuk betiko bizirako,
besteak betiko lotsatarako.
Ortziaren distiraz
distiratuko dute jakintsuek;
eta askori zuzenbidea erakutsi ziotenek,
izarrek bezala argi egingo beti,
gizaldiz gizaldi».

ERANTZUN SALMOA: Sal 15, 5 eta 8. 9-10. 11

R/. **Zaindu nazazu, Jauna,
babes bila bainator.**

Jauna da nire ondare eta edontzia;
Zuk daukazu eskuetan nire zoria.
Begi aurrean ipintzen dut beti Jauna;
eskuinean daukadala, ez naiteke dardara. R/.

Horregatik alai daukat bihotza, pozik barrena,
haragi honek ere bakean du atsedena.
Ez baituzu nire bizia Leizera egotziko,
ezta zure zintzoa ustelak hartzen utziko. R/.

Bizirako bidea erakutsiko didazu:
alaitasun betea zeure aurrean,
betiko atseginak zeure eskuinean. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 10, 11-14. 18

*Opari bakar baten bidez,
santutasun betea ekarri die behin betiko,
santu egindakoei.*

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Beste apaiz guztiak, egunero ari dira beren apaiz lanean, opari berak askotan eskaintzen, opari hauek inola bekaturik kendu ezin dutelako. Kristo, ordea, bekatuengatik opari bakar bat eskaini eta gero, Jaungoikoaren eskuin aldean jarri zen behin betiko, eta itxaroten dago, «bere etsaiak bere oinpeko eduki ditzan arte».

Opari bakar baten bidez, santutasun betea ekarri die behin betiko, santu egindakoei. Barkamena dagoenean, ez dago bekatuengatik opari eskaintzarik.

EBANJELIOA: Mk 13, 24-32

Aleluia: Lk 21, 36a. c

R/. Aleluia.

V/. Egon beti erne, eta egin otoitz,
zutik egon ahal zaitezten
Gizonaren Semearen aurrean. R/.

Lau haizeetatik bilduko ditu bere aukeratuak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Egun haietan, larrialdiaren ondoren, eguzkia ilunduko da, eta ilargiak ez du bere argirik emango, izarrak zerutik eroriko dira, eta zeruetan diren indarrek dardar egingo dute.

Orduan, ikusiko dute Gizonaren Semea indartsu eta aintza handitan etortzen hodei artean; bidaliko ditu bere aingeruak, eta lau haizeetatik bilduko bere aukeratuak, lurraren ertz batetik besteraino.

Ikas ezazue pikondoaren parabolatik: adarrak samurtu eta hostoak lehertzen zaizkionean, badakizue uda laster dela. Berdin zuek ere: gauza hauek gertatzen ikusitakoan, jakizue gainean dela, ateetan.

Hara Nik egia esan: Gizaldi hau ez da igaroko, guzti hori gertatu gabe. Zeru-lurrak igaroko dira; nire hitzak, ordea, ez dira igaroko. Egun eta ordu haien berririk ez du inork, ez aingeruek zeruan, ez Semeak, Aitak baizik».

Oparigaien gainekoa

Atzegin bekizu, Jauna, gure eskaintza:
bete gaitzala Zuganako maitasunez
eta ekar diezagula betiko biziaren zoriona.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengo

Zure dohain santuak harturik,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko agindu digun Eukaristia honek
ugal dezala gudan maitasuna.
Jesu Kristo.